

BETEKADA BIDEZKO

NAHASMENDUA EKIDITEKO

TRESNA

*June Agirrebaltzategi, Naroa Agorria,
Gaizka De Bernedo, Pablo Fernandez de
Corres eta Xabi Nanclares*



BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezero berriak ekartzeko eta ditugunak mantentzeko oso garrantzitsua da gurekin une oro harremanetan egon ahal izatea. Alde batetik, denda fisikoa izango dugunez, edonor etor liteke guregana aurrez aurre hitz egitera edota dituen arazoen berri ematera. Horrez gain, gure telefonoa izango dute, nahi izanez gero guri deitzeko. Azkenik, webgunearen bidez zerbitzu automatizatua izango dute edo korreoaren bidez idatziz alarazi ahalko digute nahi dutena. Beraz, esan genezake mota askotariko laguntzak eskainiko dizkiegula.

Gure produktua elikadura nahasmendu bat konpontzean datza. Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaigu bezeroen ebaluazioak eta aurrerapenak kontuan izatea eta, batez ere, ondo funtzionatzen ez duela ikusita, hasierako nutrizionistarekin berriro ere kontaktuan jartzeko aukera ematea, aldaketaren bat egin dezan.

Gure produktua hobetzen joateko eta ahal dugun laguntza gehien emateko, hilabetero galdetegi bat bidaliko zaie bezeroei, izandako aurrerakuntzak eta baita oztopoak bertan idazteko.